

MUko ikaslea finalista da, B Awards diseinuko Nazioarteko Lehiaketan

2011/03/23


Arrasate, 2011ko martxoaren 23a. Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko ikasle Ander Ugarte, 30 finalisten artean dago B Awards diseinuko I. Nazioarteko Lehiaketan. Horietatik bost baino ez dira euskaldunak. Sariak gaur arratsaldean, 20:00etan, emango dira Bilbon. Parte-hartzaileen artean hauek daude: Norvegiako, Danimarkako, Singapurreko, Harvardeko eta Hong Kongeko unibertsitateetako eta Mondragon Unibertsitateko eta EHUko ikasleak. Sarien bidez, nazioarteko gazte sortzaileak aintzatetsi eta sustatu nahi izan dira. Aldi berean, gizarte berritzaileetan eta etorkizunari begiratzen dioten gizarteetan, diseinuak duen garrantzia azpimarratzea izan du helburu.

Lehiaketaren helburua diseinuarekin eta sorkuntzarekin zerikusia duten industrien garapena sustatzea da. Era berean, horren bidez, nazioarteko eta Euskadiko diseinatzaileen arteko harremana bultzatu eta nazioarteko eremuetan euskal diseinua ezagutarazi nahi izan da.

Epaimahaiak, Philippe Starck, Tony Chambers (Wallpaper aldizkariko editore burua), Toshiko Mori arkitekto japoniarra abaltzat duela, bi sari emango ditu: Proiekturik onenari eta euskal proiekturik onenari. Lehena 10.000 eurokoa eta bigarrena 5.000 eurokoa. Gainera, kategorია bakoitzeko irabazleak 6.000 euroko beka jasoko dut enpresetan praktikak egiteko.

Etorkizuneko ikasgela

Lehiaketako bost kategorietatik (Produktua, Habitata, Ikus Komunikazioa, Espazio Publikoa zein Garraioa eta Mugikortasuna), Ugarte Habitataren kategorian hautatu dute "Etorkizuneko ikasgela" proiektuagatik. Ikasgela modulu malguez dago osatuta, eta moduluok, berriz, ez dute gela tradizionalen linealtasunik eta ikasleen beharretara egokitzen dira. Ugarteren ustez, proiektua bideragarria izango hemendik 10 edo 15 urtera. Ander Ugarteren karrera-amaierako proiektu finala da, eta Alecop kooperatibarentzat diseinatu du.



Etorkizuneko areto proiektua